# Hazia BGAE
**bazkideentzako informazioa**
información para socias y socios



www.pixkanakakaskari.org/hazia




**Uztaila 2023**

| Merkatuko erreferentziak | 2023 metatutako emaitza |
| --- | --- |
| Eurostoxx50: %17,8<br>Ibex35: %17,1<br>Bonoa 10urte: %3,51<br>KPI: %2,7 (Ekaina) | **%3,99** |

**Zorroaren banaketa**

| | |
| --- | --- |
| Errenta finkoa | %69,1 |
| Err. aldakorra | %24,4 |
| Inb. alternat. | %6,5 |



## Haizea popan

Dagoeneko uztaila igaro da, eta gure likidatiboak gora egiten jarraitzen du, ez legoke gaizki joera horri eustea hemendik aurrera ere.

Banku zentralek interes tipoak igotzen jarraitzen dute, baina badirudi gogo gutxiagorekin eta burtsek ere positiboan jarraitzen dute nahiz eta abuztua atzerakada batekin hasi den.

Ondo pasa udara!




# Dibortzioa…
## Zer gertatzen da nire BGAErekin?

BGAEi buruzko 5/2012 Legearen 19.3 artikuluaren arabera, epaitegian erabakitzen dena:

*"Ezkontza banantze eta dibortzio-kasuetan,* ***ebazpen judizial irmo bat*** *badago, eta ebazpen horrek zehazten badu aurreikuspen-plan bateko eskubide ekonomikoak ezkontideen artean banatu behar direla, gizarte-aurreikuspeneko erakundeak* ***eskubideak biei esleitzeko aukera*** *emango du, epaiak ezartzen duen formularen arabera. Esleipena egiten denetik, bazkide bakoitzak bere aldetik jarraituko du gizarte-aurreikuspeneko planean parte hartzen.*

*Enplegu-modalitateko gizarte-aurreikuspeneko planetan,* ***enplegatua ez den ezkontideak etendako bazkide izaera izango du.***



**Ebazpen judizial irmoa**

**Banaketa epaiak ezartzen duen arabera**

Enplegatua ez den ezkontide-ohia: **etendako bazkidea.**

**PK aldizkarira hemen harpidetu zaitezke: www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria**

info+ www.pixkanakakaskari.org/hazia
pk@kutxabank.es / 943001787